

**URREZKO LUMA EDO URTE LUZEETAKO  
MEREZIMENDU SARIA**

(TXOMIN SOLABARRIETA ETXABURU ETA *BOSTAK BAT* LANTALDEA)



Irudi batek hitz ugarik baino balio handiagoa duela esan ohi da, eta halaxe da: Txomin Solabarrieta “Bostak bat” lantaldeko kidea Josune Aristondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Diputatuaren eskutik urrezko luma jasotzen agertzen zitzaigun eguneko irudian. Bi ondarror, emalea eta hartzailea biak herri berekoak; eta gainera, ekitaldi berean, Gorka Aulestiak idatzitako *Escritores Euskéricos contemporáneos* izeneko liburua aurkeztu zen eta, azkenik, Kir-



men Uriberen literatura aztertzen duen Jon Kortazarren liburua: *Bitartean New York. Kirmen Uriberen literaturgintza*. 2011ko ekainaren 6ko irudia dugu hau, ondarroarrek euskal kulturari egindako ekarpena garbi erakusten duena. Horregatik, ondorengo egunetako komunikabideetan izan zuen oihartzunik eta ekainaren 7ko *Gara* egunkariak izenburu hau zekarren: “Ondarroatik mundura, euskal literatura ezagutarazi edo omentzeko hiru modu”.

Egun gogoangarria, eta hala jaso nahi izan dugu *Karmel* aldizkariaren orrietan ere. Ba al du zerikusirik *Karmel* aldizkariak ekitaldi honekin? Bai, saria jasotzeko ohore horretan Txomin Solabarrietak ordezkatu bazuen ere, berez, hogeita bost urte hiztegegintzan egin dituelako, “Bostak bat” lantaldeari emandako saria zen. Eta talde honetan *Karmel* aldizkariarekin lotura estu-estua duten kideak daude. Beraz, sari horren zati-txo bat, zeharka bada ere, badagokigulakoan, idatzi ditut goiko lerro xume hauek eta ondoren, “Bostak bat” lantaldearen

eta Txomin Solabarrietaren gorazarrez ekitaldi hartan irakurritako hitzaldia gehituko dut:

### HITZALDIA

Gure bideak banandu nahiz batu egiten dira. Gure kasuan, antzeko asmo, helburu eta jardueretan genbiltzanok, hau da, irakaskuntzan, gau-eskoletan, alfabetatze eta itzultzaile lanetan genbiltzanok, batu egin ginan eta premiazko arlo bat aurrean ikusirik, hari ekin geuntsan gogotsu. Hiztegegintzaren arloa zan. Zehatzago esanda, hasiera haretan, euskara hutsezko edo definiziozko hiztegiarena. Hiztegi elebidunen arloa pixka bat landuago egoan: aspaldiko hiztegiak batetik; barriagoak eta gaurkotuak bestetik. Horregaitik, aurrean genduan euskara hutsezko hiztegien erronkari erantzun nahirik hasi ginan. Horretan lehenengoetarikoak izan ginan; lehenengoetarikoak dinot, lehenengoak ez esatearren. Izan be, artean ez egoan, horretan, lan xume bat edo beste baino. Beraz, aitzindariak ginalako





kontzientziatz ekin geuntsan lanari. Ez genkian noraino eroango ginduzan bide harek, ezta noiz amaituko genduan geure ibilera be. *Euskararako Hiztegia* argitaratu genduan ezkerro, 25 urte igaro dira, eta gu hemen gagoz; bide hau oraindino luzea izan daiteke. Gu, honezkero, ekarpenik onenak eginak garela dirudi, baina arlo honetan oinordekoak izango ditugun esperantza dogu...

### “Bostak bat”

Sarreratxo honetan behin eta barriro agertzen dana “gu” pertsona-izenordaina da; elkarlanean, auzolanean diharduenen ezaugarria. Baina nortzuk biltzen ditu “gu” horrek? *Nor gara gu? Zer gara gu?* dino euskal kanta ezagun batek. *Bostak bat* da talde honek bere buruari jarririko izena eta argitalpenak *Adorez* izeneko bilduman argitaratu dira. Egin-eginean be, orain dala egun gutxi (ekainaren 1ean) agertu genduan jende aurrean geure azken lana: *Euskal Hiztegia* (*Adorez* 13). *Bostak bat* izenak ez dauka zerikusirik taldeko kideen kopuruarekin, Bonaparte printzearen arabera, euskararen euskalki nagusien kopuruarekin baino. Izan be, 1983an *Sinonimoen hiztegi* txikia argitaratu zanean, lantaldea lau kidez osotua zan, baina *Bostak*

*bat* eukan izena; geroko ibilbidean, sei kidez osotua, eta *Bostak bat* izenaz jarraitu eban...

Aurrera egin ahala, euskara hutsezko edo definiziozko hiztegien hutsunea beteta ikustean, hiztegi elebidunetara jo genduan eta geroago, batean era batekoak eta bestean bestekoak landu izan genduzan premien arabera. Izan be, hau izan dogu beti gogoan: euskaldunei euskara lantzeko tresna egokiak eskaintzea eta hor unean-unean nabari ziran hutsuneak betetzea.

Itsaso eta lehorrekoen arteko elkarlana izan da gurea. Gehienok lehorrekoak gara; zehatzago esanik, lehorrekoak bost eta bat itsasaldekoa. Baina bat horrek nortasun berezia erakutsi dau eta ekarpen ezin hobea egin deutsa talde-lanari, gerotxoago esango danez. Beraz, hemen be latindarren esaera betetzen dala esan geinke: *non numerantur, sed ponderantur*, hau da, kopurua baino bakoitzaren pisua da kontuan hartze-koa...





Hasi ginanean, bagenkian bide luze eta latza genduana aurrean, baina batera ginoiazan, elkarlanean. Batasunaren indarra. Horren balioa, hortik datorren emaitza erakutsi ahal izan deutsegu ondorengo belaunaldiei. Hori edo holako zerbait ikusiko eben *Bostak bat* lantaldearen ibilbidea urrezko lumaz saritu daben Bilboko Liburu Azokako mahaikoak.

Denboralari aurre eginez, bat-batera arraunean dabiltzanen irudia jatorrune honetan. Irudi hau normala da, aurrean egiteko latzak eta arriskutsuak diranean batez be. Eta honek, *Bostak bat* traineruko arraunlari zaharrena, nekaezina dakarsku gogora eta aho-minera: Txomin Solabarrieta Etxaburu jauna. Izan be, berari jagoko taldearen izenean *urrezko luma* jasotzearen ohorea.

### **TXOMIN SOLABARRIETA**

Txomin Solabarrieta Etxaburu Ondarroan jaio zan 1927ko abuztuaren 17an. Sei neba-arreben artean gazteena. *Etxeko sein*a esango geunke Bizkaiko herri askotan; Ondarroan, *uz-*



*Gorka Aulestia, bere liburua aurkezten.*

*kar-ūmi.* Argi dago, amaren parteko aitaita-amamak ezin ahaztuzko gomuta itzi ebela Txomin umearengan; holan dino berak: “Aittitte Islao Etxaburu Badiola eta aume Brijida Garra-miola Berridi, amaren aita eta ama, gugaz bizi ziren. Ez ni-tuen ezagutu aitaren gurasoak, aittitte Casto Buenaventura eta aume Casta Hilaria Arcocha. Aittitte Casto itto egin zen”. Tris-turaz dakar gomutara itsasoan galdu ziran beste bere aurretiko batzuk be: “Francisco Antonio Solabarrieta Echave, Ondar-roara Zarauztik etorria, 1816ko abenduaren 23ko gauean be-re 13 urteko seme Jose Antonio Solabarrieta Ibarlozarekin batera ito zen. Hau dugu Ondarroako Solabarrietatarrek gure lehen asaba. Baserritik etorri... itsasoan galtzeko! (...) Behar-bada, horregaitik, nik ez dut ittotakoen autua atsegin. (...) Li-buruetan gure aittittaren aitta agertzen da Ondarroan SOLABARRIETA deituraz lehena: 1815 JOSE MARIA SOLABARRIETA BADIOLA”.



Arrantzale familia da alde guztietatik; belaunez belaun arrantzaleak izan dira. Itsas zabalera joan zanekoa holan konatatzen deusku: “Ni itsas zabalera birritan baino ez nintzen joan. Behin, izurdeak, baina mordo bat, e!, ontzia martxan zihola gure inguruan brastadaka bide luzean ibili zirela, eskuarekin hartzeko moduan”.

### **Umetako giroa**

Umetako jolas eta abenturatxoak be itzi dabe arrastoa berarengan: “Guk umetan asko olgatzen genuen: garaian garaikoa. Neguan negukoak eta udan udakoak. Pilotan, futbolea, igerian, batelean, mendira ere joaten ginen: sagar lapurretan, in-txaurretan, gaztainatan... Nik eta nire ingurukoak goiz ikasi genuen golkokada sagarrik ez hartzen, bi edo hiru eta kito. Guarda ere egoten zen. Bat ona. Mendian sagar lapurretan mutil aldra ikusten zuenean, hiru bider txistu jotzen zuen. Bat entzundakoan, argi ibili. Bigarrena jotzen zuenean, hobe alde





egin, ze hirugarrena joten zuenean zeure gain-gainean agertzen zen. Ondarroako umeentzat hondartza sobra zegoen. Guk kafeko atzean, zubi zaharrekoak-eta astileroan, San Inazio kalekoak-eta errebala txikian, harantzago edo honantzago... Artibai ibaian. Geroago jendeak hartu zuen hondartzarako jopera. Nik ere harrapatu nuen garai hori. Plai-

arako zubia pasatzea txori tiki bat kostatzen zen, eta ez egoan udako egun guztietan horrenbeste dirurik”.

Umeen artean euskal giro jatorra egoala esango deusku ondorengo lerroetan: “Eskola barruan, eta han ere maisuari izan ezik, beti eta edonon euskaraz jarduten genuen etxean, kalean, elizan... Dotrina, kristau ikasbidea, eskolan gaztelaniaz eta elizan euskaraz. Ondarroan gure jaunartze bi egoten ziren: Komunio txikia eta komunio handia. Txikia zazpi urte betetzean, eta nagusia hamar urterekin. Hemen parte hartu ahal izateko abadeek azterketa egiten zien umeei. Gainditzen zutenei txartela eskuratzen zieten. Lehengusina batek esan zidan: zu bai, zu ederto, zu gaztelaniaz ondo ikasita zaude eta..., baina nire anaia ... ez dakit zelan ibiliko den. Nire erantzuna: nik euskaraz egin dut etsamina, sakristian, D. Segundo eta D. Eugenioren aurrean. Guk umeetan hizkuntzari dagokionez ez dugu inolako arazorik eta konplexurik eduki”.



Kanpoan zanean etxekoei eginiko eskutitzak euskaraz izaten ziran eta etxekoak berari eginikoak be bai, hori dala-eta inguruko batzuk harrizteraino. Euskara eta kantua batera joan dira Ondarroan. Hona zer dinoan honetaz Txominek: “Ondarroa herri kantaria izan da. Tabernetan, fabriketan..., baporee-





tan ere diotenez. Guk ume-umetatik, entzunaren entzunez, bertso zahar asko ikasi genituen eta mota askotako abestiak. Gabon kantak, esaterako, dozena bat bai. Gabon egunean Gabonetakoak eta Errege egunean erregenetakoak”. Geroago, seminarioan, D. Andoni Bazterretxea abade eta Ondarroako semearen laguntza handia izan ebela ikasleak esango deusku: “Hura beti zebilen bertsoak kantatzen. Honengandik nik batez ere Iparraldeko abestiak ikasi nituen. Abesti horiek balio izan didate gero ‘Adorez taldean’ eginiko liburuetarako”.

Eskolako abentura eta pasadizoekin orrialde asko eta politak bete leitekez, baina laburtu beharrez, honako honeek hartu ditut: Txiki-txikitatik kontzejuko eskolara ibili zan Txomin. *Maisu txikixe* esaten eutsena izan eben urtebetean edo. Gero D. Luis Diez, Gasteizkoa. Maisu ona, baina Kontzejura (Udaletxera) joan behar izaten eban beste zeregin batzuk betetzeko.



Eta ordenantza baten esanera gelditzen ziran umeak; zatiketa luze-luzeak egiten zituen arbel luzeagoan. Maisuarengana eskola partikularrak hartzera joaten zan Txomin; holan dinosku: “Hara joaten ginenok matematikako ariketa guztiak ikasi genituen, baita *regla de mezcla* ere. Eta kontabilitateko liburuko *haber y deber*. Hau dela eta, seminarioko lehen urteko matematika gorabeherak ez zitzaizkidan gauza berri egin. Eskola horretako hainbat ume hilabete osoan eskola ihesik eginda kaleran ibiltzen ginen. Jakina, etxekoen ezkutuan. Halako batean maisua ohartu zen, zerrenda bat egin eta egun osoko kartzela zigorra ezarri ziguten”.

### **Seminarioa**

Txominen kontaktetan Seminarioa dator hurrengo: “14 urterekin joan nintzen seminaria. Saturraranen andrazkoen pre-

sondegia zen eta hiru *preceptoría*, probintzia bakoitzean bat, zabaldu zituzten. Ni Donostiara bidali ninduten, Mira Conchara, baino ez! Leku zoragarria! Bizkaitik, Elorriokoak, Ermukoak eta ni. Beste guztiak Gipuzkoakoak (...). Guztiok euskaldunak. Irakaslea, D. Jesus Aldanondo ere bai. Donostiarra. Txalopak kaira sartzen ikusten nituen eta herrikoak ezagutzen nituen, izen eta guzti. (...) Guztiak ginen euskaldunak baina han dena zen gaztelania. Hemen jatekoa urri samar baina osterantzean zoragarri! Itsasoa, aurreko isla, kaia, hondartza. Kontxako hondartza, eguenetan, dena zen guretzat. (...) Bigarren urtea Bergaran. Leku hotzagarrik. Hemen hasi nintzen musikaz gaitzen. Tiple egin ninduten eta Bergarako orfeoi famatuan ere parte hartu izan nuen. Gero eta gero konturatu nintzen balentria horren balioaz. Hizkuntzari buruz..., latin eta gaztelania”.

Gasteizko Seminario Nagusian 10 urte. Euskarari jagokonez, ofizialki, –dino berak– “ikasturteko azken egunean, goizeko meza ostean *Agur Jesusen Ama* kantua. Eta kito”. Gainerako





irakasgai, hizkuntza eta kultura giroaz hau dino: “Filosofiako Logica eta Critica eta Teologiako Dogma eta Moral irakasgai eta ikasgaiak latinez, bestelako irakasgai eta ikasgaiak gaztelaniaz.. Frantses apur bat, grekoa zer edo zer eta hebreera apur bat. (...) Zertxobait mugitzen hasi zen jendea. Juan Mari lekuonak Frente de Juventudes delakoak eraturiko konkurtsu batean lehen saria irabazi zigan. Lanaren titulua: *Ama*. Gure aurreko urteko ikaskideek *Alos torrea bai*, *Alos torrea* abestia aukeratu zuten euren himnotzat. Jose Juan Zubizarretak eskatu zidan berari irakasteko eta gero berak bere lagunei irakatsi zien. (...) Gure urtekoek *In Altum* izeneko hileroko aldizkaria daukagu, eta Nikolas García Urrizek seminario garaiko gomuten artean hau idatzi zuen orain dela hiru hilabete *In Altum*-en: ‘Txominnek hainbeste euskal abesti irakatsi zizkidan, abesti asko-asko’.

Goi mailako ikasketen artean Seminarioko musika-formazioa azpimarratzen dau: Egunero ordu erdi solfeoa. Kanturako hiru talde zituen: Korua, Santa Zezilia Kapera eta ‘Corillo’ esaten eutsen koru txikia, 14 lagun ingurukoa. “*Circulo Cultural Vitoriana* joaten ziren artistak: pianistak, biolinistak, seiko-teak seminaria ekartzen zituen D. Pablo Bilbao Aristegik, eta Bilboko orkestra, eta Bilboko udal txistulariak eta abar. Musika



hezkuntza zabala eta sakona. Ni bosgarren urtera arte tiple eta gero segidan hiru koruetan tenor. Capilla Santa Cecilia koruak Bilboko Filarmónican eta Donostiako Centro Culturalean ere abestu zuen. Musikaz nahiko ondo jantzita atera nintzen”.

### **Abade eta lehenengo destinoak**

1953ko ekainaren 28an egin zan abade, Bilboko katedralean, Casimiro Morcillo gotzainaren eskutik.

Errigoititik pasatuz, Ermua izan zan Txominen abadetzako lehenengo herria. Hiru urte egin zituan hemen. Hemengo ekintza erlijioso-kultural batzuen artean, katekesia, musika (kantua) eta antzerkia aitatzen ditu: “Ermuan bazegoen gizonezkoen korua, eta erdarazko katekesia ondo eratuta. Antzerkiak eta zartzuelaren bat ere antzestu izan omen zuten. Santa Ageda eskea ere urtero egiten zuten urteko kintopekoek. Niri katekesiko azken mailako mutikoen ardura eman zidaten. Mendira irteera batean bizpahiru bertso edo euskal abesti kanta nituen eta kantuok irakasteko eskatu zidaten. Nire taldeko mutiko guztiak euskaldunak ziren. Balizko kantooren zerrenda eman zidaten eta banan-banan egin nien koroan



*Jon Kortazar Kirmen Uriberen literaturgintzari buruzkoa aurkezten.*

parte hartzeko gonbita. Horrela eratu zen koru mistoa. Otu zitzaidan Gabonetako eszenak (estampas de Navidad) euskarazko gabon kantekin antzezteak: oso erraz preparatu genuen, kantuak bada herrian eta etxean ikasitakoak nituen eta. Han ez zekiten Olentzero zer zen. Bi urtetan egin genuen Olentzeroren kalejira, gabonetako kantuez lagunduz”.

Txominen abadetzako trenak Gatican izan eban hurrengo geltokia; gauza asko ditu esateko. “Hemen ikusi nuen euskaraz alfabetatzeko premia. Hemen hasi nintzen sermoiak idazten eta oso lan zaila egiten zitzaidan. Gauza bat da kartak-eta idaztea eta bestea sermoiak idaztea” dino berak.

Gatican be korua eratu eban. 1954. urtean Belokeko *Iratzeder* (Xabier Diharce) eta Lertxundi beneditarrak *Pasionea* izeneko liburua argitaratu eban, Ebanjelioaren testua Aita Leon Leonen itzulpena zelarik. Honetaz hau dino: “Liburua eskuan esan nion D. Eutikiri: guk hau erraz-erraz antolatu genezake. Korua hemen daukagu (benetan, korua ederra zen). Osterantzeko aktoreak ere batuko ditugu handik eta hemendik. Pasio-



nea horretan hainbat elkar-  
rizzketa zeuden eta. Berak  
esan zidan: nik testua biz-  
kaieraz jarriko dut eta zuk  
nota musikalak jarri. Esan  
eta egin. Ez dakit nondik  
nora jakin zuten, baina Mi-  
guel Angel Aztiz, La Gace-  
tako kazetaria eta Gabriel  
Aresti poeta etorri  
zitzaizkidan horren berri  
eskatzera. (...) Artikulu lu-  
zea idatzi zuen Aztizek.  
Emanaldia hobeto ezinik  
atera zen (1958an). Eliza  
bete jende agertu zen.  
Amaieran koruko eskaile-  
retan zain egon zen Alfon-  
so Irigoien eta esan zidan:  
langile! zorionak guztio!  
Beste gorbatadun gizon ba-  
tek itaundu zidan ea parte  
hartu zuten guztiak Gatika-  
koak ziren. Erantzun nion:  
korukoak denak. Eta pres-  
biteriokoak ere hiru izan  
ezik gatikarrak. Handik hi-  
letara, ni han ez nengoela,  
jakin nuen gizon hura Aju-  
riagerra zela eta parrokoari  
gutun bat idatzi ziola zo-  
rionak ematen. Sonatua  
izan zen ekintza hori. Ma-  
drileko Radio Nazionalak





*Ekintza honetan bildu ziren ondarroar batzuk.*

ere aipatu egin zuen gaueko partean. Jakina, gure herriko eta senide Rafael Osa Etxaburu kazetariak igorritako oharraren in-darrez.

Beste ekintza bat izan zen, dantza taldea antolatzea. Nes-katoen zortziko hiru talde eta mutikoen zortziko talde bi. Dantza taldeak, nik handik alde eginda ere, aurrera jarraitu zuen. Herririk herri ere ibili ei ziren. Nik nire herrian eta etxean hartu nuen herri kultura hor ere zabaldu nuen. Eta kultura aipatu dudanez hona anekdota hau. Dotrinan, muti-ko taldeari esan nion: bihar hemendik honako zatia irakurri-ta etorri. Beno, bihar ez, bihar *iso* eta *aida* daukazue-eta (idi probak zeuden). Handik segundo bira-edo, burua ma-kurtuta xuabe-xuabe Asiok esan zidan: *iso*, jaune, astoari! Asio hau San Francisco-ko euskal ostatu batean aurkitu nuen ni Ameriketatik ibili nintzenean. Jakina, han zeuden euskaldunei kontatu nien pasadizo hau, eta... haiek egin zuten barre algar!!!

## Atzerrian

Hurrengo geltokia, non eta San Fernandon, Cadizen. Capellán segundo del Cuerpo Especial de Infantería de Marina. Hara bidaltzea zozketa bidez izan ete zan itaunduz, hau erantzun eustan: “Hara bidali ninduten, ez zozketaz, zu haraxe esanda baino”.

Eta han euskara aldi baterako atseden hartzen itzi beharko ebalakoan, baina hona Txominen erantzuna: “Hara, bada: Josebe Garmendia Fanok, Gatikako etxeko seinak, bere eskuz kopiatuta, Eutikik niri aitaturako adizkien paradigmatik postaz igorri zizkidan. Eta nik, hantxe, San Fernandoko San Carlos kuartelean paradigmatik paradigmatik, aditzen eraz garaturako bizkaierazko adizkiak buruz ikasi nituen, eurerariko asko, jakina, etxekoak nituen eta beste batzuk ezagunak izan arren erabiltzen ez nituenak. Eutikik adizki hauek Azkueren *Morfología Vascatik* hartuak eta aukeratuak zituen”.

*Ricardo Badiola,  
Juan Luis Goikoetxea,  
Luis Baraiazarra  
bakoitza bere familiakoekin.*





*Txominen loba Antigua eta arreba Kontxi, eta Josebe Garmendia.*

Hemen be pasadizo polit eta historia bizi-biziak dira, baina tren aurrera doa eta hurrengo geltokia Amoroton zan, Axuritik pasatu ondoren. *Amoroto* idatzi, baina *Amoto* esan. Liturgia, elizako kantak eta Arrate irratiko saioak aitazen deuskuz: “Liturgia, jada, lekuan lekuko hizkuntzan egiten zen. Mezako *Kirie*, *Sanctus* eta *Agnus Dei* parteak euskaraz musikatuta agertu ziren. Eta *Gure Aita* otoitza ere bai. Epistola osteko salmokatank Belokeko PSALMOAK liburutik hartu nituen. Neurri desberdinetako doinu batzuk irakatsi hango emakume kantoreei eta meza nagusia zoragarri dotoretzen zuten. Herriak ere bere parte a ngi abesten zuen.

Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga eta Aulestiko abadeek Arrate irratitik ostegunero ematen zuten euren irratsaioa. Niri “aste barruko gora beherak” azaltzea tokatu zitzaidan. Albistiren baten ostean aukerako bertsoa abesten nuen. Astelehenean Aulestiko D. Emilioren etxean elkartu eta zintan grabatzen genuen eguenetarako emanaldia. Euskara lantzeko abagune aproposa gertatu zitzaidan”.

Euskara lantzen jarraitu eban: “UMANDIren *euskal gramatika* burutik amaierara ikusiz, hango ikasgaien gramatikaz jabetu



nintzen, aditzez izan ezik. Aditzak bizkaierazkoak erabiltzen baintuen. Gero, alfabetatze eskolak hartu nituenean ohartu nintzen deklinabidea banekiela, UMANDIren gramatikan, bada, izen hori aipatu gabe zabal eta sakon azalduta dator...”

## Ameriketara

Gero Ameriketara joango zan, hango euskal artzainen artzain espiritual eta lagun izateko. Aurreko egunetan estu hartu eben, kontizu... Holan dino berak: “Ameriketara joan aurreko egun batzuk Ondarroan egin nituen. Lortu nuen pasaporte. Eta 1969ko urtarrilaren 25ean, goizaldean, bost herritar preso eraman gintuzten Bilboko komisariara. Imanol eta biok aparteko leku batean sartu gintuzten. Hara ekarri zuten Periko Solabarria ere. Han hiru egun egin eta aske utzi ninduten. Eta gau bertan Ameriketara airean. LAS VEGAS (Nevada). Behin itaundu nion hango abade bati: zergatik *Las Vegas* aitaturakoan, **Nevada** gehitzen duzue? -Ba, New Mexikon ere Las Vegas bat da goelako... Artzainen lekurako asmotan joan nintzen baina, gaputxin (gaztelania) dakidala eta Las Vegas (Nevada)ra bidali ninduen Bishop Greenek”.

Ameriketatik bihurtzerakoan, Bilbon kokatu zan Txomin eta oraingoan SAN ADRIAN parrokian. Hau dino berak: “Hemen Joseba Atxak eratuta euskarazko eskolak ematen hasi ginen. Barnetegia ere antolatu genuen Gorbeako txoko handi batean. Oraindik ez zegoen ‘barnetegi’ deiturarik. Hor ikasten jardun zuen andre batek, Tasio Erkiziaren emazteak, BEC aretotik irtean esan zidan: ‘zuri esker orain bertsoak ulertzeko ere baina!’ Euskara ikastera etortzen zirenen arteko sei bat pertsonari Sopelan eman nizkien alfabetatze eskolak hainbat egunetan.

Santa Ageda eskea, abestia bera Iñaki Garmendiak hiru bozetara konposatua. Eta kantoi guztietan beti kantu bera ez errepikatzearren, beste kantu itxuroso birez txandakatzen genuen kalejira.

Hemen nengoela otu zitzaidan alfabetatze eskolak hartzea. Derioko UDAKO EUSKAL IKASTAROr joateko izena eman nuen. (...) Antolatuta zeuzkaten urte guztiak egin nituen.

Gerotxoago DEUSTUKO HIZKUNTZ ESKOLAn sartu nintzen, sarrerako eta amaierako azterketak gaindituz. Tartean EUSKALTZAINDIKO D eta B tituluak lortu nituen.

U.E.U: Hiru urtetan.

Karmelo Etxenagusiairen *Iparraldeko Euskal Idazleak* liburu-ko hitz ez hain ezagunen sinonimoen zerrenda osatu nuen, bera Erromatik etor zedinean erregalatzeko.

Gabonetan ikaskideak zoriontzeko ohitura nuen, euskarazko zertxobait igorritz. *Gabonmin* izenpetzen nituen. Gure Juan Mari Lekuonak, bere liburuetariko batean niri eginiko eskaintzan, besteak beste, hau dio: “Hire Eguberritako opariak eskertuz...”.

Hona hemen lagunak zoriontzeko Tominek maitasunez landu eta bidaltzen zituen lantxo batzuen aipamena:

- 1) *Deklinabide batuaren* eskema.



- 2) *Euskal postposizioak* (bidalitako lanetatik zabalena eta sakonena).
- 3) *Bizkaierazko aditz laguntzailearen adizkitegia*.
- 4) *VULGATA Bibliako liburuak, ordena alfabetikoan, alboan euskarazkoetan ematen dizkieten izenak direlarik*. (Erabilitako euskal bibliak: Duvoisin, Olabide, Kexeta eta EAB (elizen arteko biblia).
- 5) DEKLINABIDE BATUA / DEKLINABIDEA BIZKAIERAZ.

Gotzaindegian itzultzaile-lana egin eban 1978tik 1991ra bitartean. Ordenagailuz lehenengo saioak noiz egin zituan itaundurik, 1987an edo 1988an erantzun deust.

*Estropada Hiztegiaren* egileak, zertan edo hartan lagundu deutesen askori eskerrak emoten deutsez. “Bostak bat” taldea be hor agertzen da bere ekarpentxoak egin dabenen artean. Txomin Solabarrieta, barriz, bi bider ageri da. Batean hau dator: “Estropadazale jakitun Txomin Solabarrietari”; eta bestean, hau: “Txomin Solabarrietari, ingelesezko ordainengatik”.

Azken laburpetxo bat eginez, hau esango neuke: Txomin Solabarrieta ez dogu ahaztu behar abadea dala eta eliza barruan nahiz kanpoan egin dau ebanjelizatze-lana. Herrian eta herriko kulturari sartu-sartua egon da beti; guztiei on egiten, laguntzen. Euskara eta musika (kantua) izan ditu euskarririk sendoenak, eta hortik egin ditu bera ibili dan leku guztietan ekarpenik onenak. “Bostak bat” taldea aitatzuz hasi gara eta amaitu be halan amaituko dogu. Hor bakoitzak bere ekarpena, ahal izan dauantxoak egin dau, baina azpimarratzekoa da Txominen zorrotasun eta fintasuna eta, arlo batzuetan batez be (itsasoaz zerikusia dauanetan, esaterako), taldeari emon deustsan ziurtasuna. Urrezko Luma hau izan dadila guk sentitzen dogun berarenganako esker onaren seinale.

*Luis Baraiazarra Txertudi*  
*Bilbo, 2011-06-06*